

Bulegoen sailkapen berria

ESP	5%	Aurrikusitako plangintza jarraituz, aste honetan izango dugu eskuetan Kutxabankeko lehenengo bulego-sailkapen batera-tua.
A	10%	Sailkapen honek negozio-bolumenaren arabera handitik txiki- kira antolatzen ditu bulego txikizkariak, eta dagokion pert- zentilaren arabera kategoría bat esleitzen die:
B	20%	
C	25%	
D	25%	Bulegoaren kategoriak bi eragin nagusi izango ditu: 1. Bulego bakoitzeko Zuzendariaren ordainsari-maila zehaz- ten du, jaso beharreko maila eta lanpostu osagarria ren kalkulu- rako. 2. Zuzendariordea izango duten bulegoak zehazten ditu eta berauek jaso beharreko maila eta lanpostu osagarria k zeintzu diren. Zuzendariordea honako maila duten bulegoetan egongo da: Berezi, A, B eta C. Hau da, bulegoen %60an. Kutxa eta Vital jatorria duten bulegoetan ez zegoen orainar- tean zuzendariorderik, bertako Hitzarmenetan ez bait zen ja- sotzen postu hau. Zuzendariorde hauen izendapena (BBK ja- torridunetan egin gabe daudenak gehituz) Hitzarmenean zehazturiko plangintza honen arabera egingo da:
E	10%	
F	5%	

%50a 2014an zehar, %25a 2015ko lehen seihilekoan eta bes-
te %25a bigarreanean.

Hitzarmenaren 3. Xedapen Iragankorrean jasota dagoena kontutan izanda, boronda-
tezko osagarri pertsonal xurgagarri bat esleituko zaie bulegoak sailkatzeko sistema
berriak bulegoko Zuzendaritzako edo Zuzendariordetzako lanpostu batean jardunean
dauden pertsonen eragiten dien galera ekonomiko errearen (bulego-kupoak ezart-
zen ditu sistema berriak) 2/3en baliokidea den zenbatekoagatik.